



## ii.2. Forma (di)trantsitiboetako aditz

### laguntzaileen erroak indikatiboz kanpo: **-gi-** (v **-za-**)

Egilea: Endika Legarra

Nola aipatu: Legarra, Endika. (2022). Forma (di)trantsitiboetako aditz laguntzaileen erroak indikatiboz kanpo: **-gi-** (v **-za-**). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=2&e=16&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

## Gako-hitzak

aditz laguntzaile alternantzia, erro alternantzia, modua

## Deskribapena

Euskara hainbat erroz baliatzen da aditz laguntzaileak sortzeko. Erroa desberdina da aditzaren iragankortasunaren arabera (iragangaitz v iragankor) eta moduaren arabera (indikatiboa eta baldintza v gainerakoak).

Aditz inakusatiboen indikatibozko eta baldintzazko formetan laguntzailea *izan* (1) da, eta inergatibo eta iragankorren kasuan, berriz, *\*edun* (2). Subjunktiboan, ahaleran eta aginteran, aldiz, beste erro batzuk lekukotzen dira. Aditz inakusatiboen kasuan *\*edin* (*-di-*) da erroa (3).

(1) etorri      naiz

	etor.PTCP	1SG.izan
<b>(2)</b>	egin egin.PTCP	dugu (3ABS).edun.1PL.ERG
<b>(3)</b>	etor etor	nadin 1SG.edin.COMP

Inergatibo, transitibo zein ditransitiboetan, ordea, bi erroren arteko alternantzia dialektala topatzen dugu. Eredu orokorra jarraitzen duten hizkeretan \**ezan* da indikatiboz kanpoko forma iragankorren erroa eta *-za-* formarekin agertu ohi da (4a subjunktiboan, 4b ahaleran eta 4c aginteran). Hizkera ereduari, berriz, *eginen* erroa erabiltzen da aditz laguntzailea sortzeko, hots, *-gi-* (5).

<b>(4a)</b>	egin egin	dezagun (3ABS).ZA.1PL.ERG.COMP
<b>(4b)</b>	egin egin	dezakegu (3ABS).ZA.POT.1PL.ERG
<b>(4c)</b>	egin egin	ezazu (3ABS).ZA.1PL.ERG
<b>(5a)</b>	egin egin	dagigun (3ABS).GI.1PL.ERG.COMP
<b>(5b)</b>	egin egin	dagikegu (3ABS).GI.POT.1PL.ERG
<b>(5c)</b>	egin egin	egizu (3ABS).GI.1PL.ERG

Eredu orokorraren kasuan erabiltzen den erroak (\**ezanek*) gaur egun aditz laguntzaile gisa baino ez du funtzionatzen. *Eginek*, aldiz, balio bikoitza dauka gaur egun, aditz nagusia zein laguntzailea izan baitaiteke.

Bestalde, bi erro hauetatik gain hirugarren bat ere badauka euskarak kasu hauetarako, ekialdeko euskalkietan lekukotzen dena, *-iro-* (6), hain zuzen ere (Hualde 2003b: 229). Aditz laguntzaile hau, ordea, ez dugu txandakatze honetan jaso, baina \**ezanen* eta *eginen* kidekoa da.

<b>(6)</b>	egin egin	dirogun (3ABS).IRO.1PL.ERG.COMP
------------	--------------	------------------------------------

## Datu-basearen emaitzak

Hizkera eredia mendebal zabalean lekukotzen da, hots, mendebaleko euskalkian, erdialdekoaren zati batean (Beizama eta Azpeitia, besteak beste) eta Nafarroaren mendebaldean (Urdiainen). Gainontzeko euskalkietan ez da lekukotzen.

Hala ere, *-za-* eta *-gi-*ren arteko banaketa ez da dirudien bezain zurruna. Izan ere, garai batean *\*ezan* orokorra zen (Mitxelena 1960), baina mendebalean galduz joan da *egin* zabaltzearen ondorioz. Hori dela eta, zenbait hizkeratan biak ager daitezke.

## Aipamenak

Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.

Mitxelena, Koldo. 1960. «Gipuzcoano y vasco». In Joseba A. Lakarra and Iñigo Ruiz Arzalluz (eds.), *Luis Michelena. Obras Completas. VII. Fonética y Fonología, Morfosintaxis y Dialectología*. 697-700.

